

## **BALOREZKO PROPOSAMENA**

Gaur egungo mahai gehienek, altuera zehatz bat dute eta horrek, batzuetan, arazoak sor ditzake. Horren haritik, gure produktuari esker, arazo hori amaitu daiteke, izan ere, horren bitartez, mahaiaren altuera erregula daiteke besteak beste. Hau da, pertsona batzuk deseroso sentitzen dira mahaiaren altueraren ondorioz eta gure produktuari esker, aipatu bezala, mahaiaren altuera erregula daiteke pertsonaren gustuen arabera.

Bestalde, guztioi gertatu zaigu, batzuetan mahaiek edo aulkiek lasaiera izatea eta beraz, arazo horrekin amaitzeko, produktu berri bat sortzea beharrezko ikusi genuen. Beraz, mahaiaren altuera aldatzeko tresna bat sortu genuen arazo hori konpontzeko. Era berean, lasaiera izan arren, mahaia edo aulkia erabiltzen jarrai dezake pertsonak eta beraz, ez du beste aulki edo mahairik erosi beharrik. Horri esker, kutsadura ere murriztu egiten da.



Bertan aurkeztutako produktuaren ezaugarri teknikoak dagokienez, lehenik eta behin, produktua PLA izeneko material berezi baten bitartez fabrikatua da 3D inprimagailu baten bitartez. Horretaz gain, haren guztirako pisua 53.5g-koa da. Ikus daitekeenez, neurri batean, nahiko objektu arina dela esan dezakegu eta, horrenbestez, alde batetik bestera garraiatzeko nahiko eroso da. Bestalde, haren egiturarekin hasteko, produktua, bi atal desberdinez osatuta dagoela esan dezakegu. Alde batetik, erroskaren funtzioa betetzen duen atala egongo litzateke eta bestetik, erroskaren kiribiltzen den objektua. Erroskaren neurriak dagokienez, altuera, 5.5cm-takoa da eta diametroa berriz, 4.5cm ingurukoa, Beste objektuak, 6cm-ko altuera 5.7 inguruko diametroa du.

Ondorengoek definitzen dute gure produktua:

- Berritasuna.
- Pertsonalizazioa.
- Lana erraztea.
- Ongizatea (osasun aldetik).
- Originaltasuna.

Gure balioa kualitatiboa da, bezeroek produktuak eskaintzen duen esperientziagatik erosiko baitute gure produktua. Gainera, ez dago antzeko produkturik. Mahaien altuera erregulatzeko aukera badago, betiere esperientzia horrek eskaintzen duen mekanismoa mahaian integratuta badago. Beraz, mahai erregulagarri batez gozatu ahal izateko, gaur egun merkatuan dagoen aukera bakarra mahai bat erostea da, lehen aipatu bezala, sistema edo mekanismo hori integratuta eramango duena.